

Dabid Anaut

EUSKARA TEKNIKARIA ♦



Ana Obregon gure kosmobisioan

BEHIN BAINO GEHIAGOTAN gertatu zait: ideia erakar-garri bat, itxura politekoa, aise eta pozik neure eginen nukeena, baina, arrazoa bata edo bestea izanda, ase-tzen ez nauena, ontzat ematea kostatzen zaidana. Sinetsi nahi, bai, baina barruko ahots inpertinente batek esaten dizu: “Ez duk horrela, ideiak zulo han-diegiak ditik...”.

Adibidea? Bada, esate baterako, hizkuntza bakoi-tzak mundua ikusteko era bat ematen duela, edo, areago joanda, hizkuntzak berak pentsamendua baldintzatzen duela, halako eran non hizkuntza par-tikular bakoitzaren egiturak eta nola-kotasunak hizkuntza horren jabearen pentsatzeko era baldintzatzen eta itxuratzen duen.

Idea, berez, erakargarria iruditzen zait. Eta uste dut ez dudala aparteko interesik egiatzkoa edo faltsua izan dadin. Abertzaletasunaren edo hiz-kuntza gutxituen defentsaren ikuspe-gitik horren alde egin izan da, eta espazio horietan mugitzen naiz nero-ni, baina ez zait iruditzen erabateko argudioa denik, ezta ezinbestekoa denik ere. Eta sinesta kostatzen baldin bazait, galdera asko erantzunik gabe uzten diz-kidalako da, besteak beste. Gustura emanen nuke amore inork ideiarekin balioaz konbentzituko banindu.

Eman dezagun, hala ere, egia dela, gauzak hala

direla. Bada, berriki agertu zait ideia zalantzan jartze-ko beste argudio bat: duela hilabete batzuk Leitzako bi emakume, adinekoak ni ez bezala, baina euskaldu-nak ni bezalaxe, eta horrenbestez eta ustez mundua euskarak utzitako moldetik ikustera dutenak, propio joan omen ziren Iruñera, zertara eta Ana Obregon ikustera eta entzutera. Hara! Nekez aurkituko nuke mundua ikusteko nire modutik urrutiago gelditzen den adibiderik, hori baino argigarria-gorik.

Hizkuntza partekatzen dut haiekin, euskaldunak baikara hiruok. Eta par-tekatzen hasita, baita gaztelania ere, gaztelaniadunak era bagara eta. Baina, benetan, ziur naiz haien kosmobisioa, mundua ulertzeko modua, zeharo ezberdina izan behar dugula. Pertso-naia esperpentikoekiko interesa gora-behera, milioika lagun izanen dira munduan, ondoan ditudan bi euskal-dun horiek baino hurbilago ditudanak bizitzari begiratzeko eta mundua uler-tzeko garaian. Euskarak lurralde

zabal, aberats, atsegin eta gozagarri bat eskaintzen dit, gainerako euskaldunekin partekatzen dudana, baina munduari begiratzeko betaurrekoak, bistan denez, beste osagai batzuk ere, edo beste osagai asko ere, izan behar ditu ezinbestean. ■

Iruñera, zertara eta Ana Obregon entzutera. Hara! Nekez aurkituko nuke mundua ikusteko nire modutik urrutiago gelditzen den adibiderik



DANI BLANCO



Ixiar Rozas



IDAZLEA

Epikoa

1) LITERATURA GENEROA. Anakronikoa bada ere, aro garaikidea deitzen deneko lan asko elikatu ditu. Anakronikoa delako da interesgarria epika, batez ere, esanahien lekualdatzea gauzatzen badu.

2) Epi(dikti)koa irakur genezake. Erreto-rikaren genero bat da solas epidiktikoa. Gure literatura solas ediptiko hutsa dela idatzi du Joseba Sarrionandiak. Lengoaiaren nahiz irudiaren espektakuloaren gizartean, ikuskizunaren osagarri delako deus ere zalantzan jarri gabe. Eta bakoitzak bere zokoa bilatzen duelako *self service* erraldioan.

3) Baita e(di)pikoa ere. Harreman edipi-

koetan *self service* modukoak dira bazterrak. Hartu eta eman, eman eta hartu, metro karratu beraren inguruan. Epikureoa izan daiteke halaber metro karratu beraren inguruan benetako eztabaidari, frikzioei, hazteari, ihes egitea.

4) Egungo egoera ekonomikoaren irten-bideek epikoak beharko lukete? Ekonomia epikoagoa, sozialagoa, etekin ase-ezinak bila-tu ordez komunitatearen bene-tako beharrei begiratuko diena. Ekonomiaren estetizazioari, hau da, espektakularizazioari, aurrez aurre begiratu diona. ■

